

Alli, honeratzen ari da

Euskaldunon Egunkaria, 1993-10-26: 2.

Juan Cruz Alli jaunak, beste nafar askok bezala, aise ulertu du Nafarroako Erresuma Euskal Herriaren buru eta arima izan dela hasieratik. Baina politikaren gurpilak eta gerra-zanpagailuak direla medio Euskal Herria izateari eta Nafarroaren Estatua izateari utzi behar izan bazioten ere, Europa batuaren bidez bakoitza naturalki berean aurkitzen posible izango da demokraziaren legez, solidaritatean, gizakia gizaki bezala, herria, herri. Zentralismoak gure nortasunaren seinaleak: herrien izenak, gizakien deiturak, mendien, bailaren, ibaien eta erreken izenak ere ezin izan ditu ezabatu. Urak bere neurrira datoz. Batez ere orain, Espainia eta Frantzia urak hartu balitu bezala laburtzen hasi direnean eta mugak desegiten. Alde bateko eta besteko goardia edo jendarmeen fusilekin desegitean marra magikoa itzaltzen hasia da. Egun hauetan pauso gisa Autonomia Estatutua lortu du Nafarroak, eta bere Lehendakariak, Alli jaunak, esan berria die herriko gazteei joan den 19an UPNko jardunaldietan berez zor dien egia: "Europako zentralismoaren aurka batetik, baina gehienbat Estatuaren zentralismoaren kontra, arriskutsuago da eta"; "estatalistek jakin beharko lukete, Estatuak une historiko batean sortzen dira, eta erlatibok dira", eta "erabakiak herritarrengana hurbiltzen ditugun neurrian gizartea integratzen ari gara; hau da, gauza komunetan solidarioak izan behar dugu, baina gureari dagokigunez autonomia eta erabakitzeko ahalmena defendatu behar ditugu". Hau ez da taktikaz esan nahi izan, egiak ez du kopiarik. Nondik irten zaio Alli jaunari hau? Ba batzuk "Alli" (han), ulertzen dute, euskaraz ez dakitelako. Baina dakitenak "Arielari" entzuten dute Larraunen.